


/// ///

# IGARTUBEITI

## BASERRI MUSEOA



## IGARTUBIZIA

### ... IGARTUERDIKOen ESKUTIK

*...auzolanean lan egiten genuen...*

**Juanita Epelde eta Juan Zufiria, Igartubeitiko bizilagunak dira, Igartuerdin bizi dira eta gertutik ikusi dute zer nolakoa izan den Igartubeitiren eraldaketa. Ondorengo elkarrizketak Ezkio-ltsasoko bizilagun hauen testigantza biltzen du, Igartubeiti izan zenaren memorian sakonduz.**

**Noiz eta nola ezagutu zenuten Igartubeiti?**

Juanita: Umetatik joaten nintzen Igartubeitira jolas egitera, betidanik ezagutzen dut baserria, gogoan dut bai bertako amona, beti zerbait ematen zigun...

Juan: Juanitarekin irtetzen hasi nintzenean ezagutu nuen Igartubeiti, ordutik, lan asko egindakoak gara elkarri lagunduz.

**Nolako harremana izan duzue Igartubeitiko familiarekin? Auzolanean ibiltzen zineten?**

Juan: Elkarri laguntzen ginen, batzuetan hemen eta besteetan han. Igartubeitiko Joxe eta Bixenterekin lan egindakoa naiz. Batez ere Joxe-rekin nuen erlazioa, hiztunagoa zen hau eta, larrera zihoala beti geratu ohi zen kontutan apur batean.

Juanita: Behiren bat txala izatekotan zenean beti Joxeri deitzen genion, bera zen hemen "beterinarioa".

Juan: Askotan elkar laguntzen ginen, belarretan, behien jaiotzetan... ibilia naiz ni, belarra mandiora sartzen behetik sardearekin botaz, oraingo malda hori ez zegoen eta. Behin Joxeri txahalak ihes egin zion, Juanitaren aita lo zen eta neuk lagundu nion harrapatzen. Melokotoiak ere izaten ziren Igartubeitin eta hauek biltzen ibili ohi ziren, ni ordea sekula ez nintzen jardun. Beste batean belarretan ginela Joxe laguntzera etorri zitzaigun bere "segadora" berriarekin, bere zelaiko lanak amaitu eta geurera etorri zen belarra moztera. Garai hartan "segadora" gauza handia zen eta Joxe beti zen laguntzeko prest.

**Zein da Igartubeitik memoriara ekartzen dizun irudia? Ezberdina da baserria lehen eta orain?**

Juanita: Zizeilua eta beheko sua dira bururatzen zaizkidan irudiak, gogoan dut Igartubeitiko sukalde zaharra. Gaur egun oso ezberdina da baserria barrutik, zaharra bai baina ez ezagutu genuena, sukaldera sartzeko pareta bat gogoan dut, komuna eta honen ondoan ukuilura zihoazen leihoak...

**Nolakoa da orain sentsazioa Igartubeitira sartzean? Zer da gaur egun gehien gustatzen zaizuna?**

Juanita: Oso ondo dago, konjuntua bera da gustatzen zaidana. Ilusio handia sentitzen dut jendea ikustean, Sagardo Astean dena beteta dagoenean... bozgorailuetatik bisitariei deika entzutea ere asko gustatzen zait, ilusioa egiten dit, oso ondo entzuten baita hemendik.



*Igartuerdi baserria berri aurretik.*